

11. Euskal maileguak eta mailegu teoria: maileguen egokitzapena eta honek zer dakarkion hizkuntzaren historiari.

1. Sarrera

Hizkuntza ororen lexikoan bi talde bereizi behar dira: batetik, ondare zaharreko hitzak, bestetik, maileguak. Euskaraz ondare zaharreko hitzak dira antzinagoko euskaratik datozenak (AEZetik, AEBtik, EBZetik, Erdi Aroko euskaratik... ez denak euskara bat eta beretik). Maileguak, berriz, nagusiki latinetik eta lau erromantzetatik (gaztelania, nafar erromantzea, gaskoiera eta frantsesa) datozen hitzak dira.

Ez dago kalkulu zehatzik zein proportzio duen talde bakoitzak. Bi muturretako iritziak zabaldu dira: badira euskaraz berrogeiren bat mailegu baino ez direla uste dutenak, baita lexikoaren erdia baino gehiago mailegatutako hitzek osatzen dutela uste dutenak ere. Dударik gabe, gertuago gaude bigarrenetik: ondare zaharreko hitzak oso gutxi dira (edo nahi baino gutxiago), eta metodoak zenbat eta gehiago zorrotzu, orduan eta gutxiago aurkituko ditugu.

2. Euskal maileguen jatorria

Euskal maileguak hizkuntza eta garai ezberdinetakoak dira, baina oparoenak eta ezagunenak azken hogeitaz mendeetan sartu dira, gorago esan bezala, latinetik lehendabizi, auzo erromantzeetatik gero. Latin-erromantzeetatiko maileguak, ordea, ez dira bakarrak. Baliteke erromatarren aurreko garaiko alboko hizkuntzetako maileguen bat ere egotea, zeltatik (zehatzago, zeltiberiera edo galieratik) eta iberieratik, baina orain arte eremuok ez dute emaitza ziurrik lortu. Era berean, baliteke V. mendetik aurrera mailegu germaniarrak eta VIII. mendetik aurrera arabiarak sartu izana, baina hemen ere ez da frogatu mailegu zuzenik dagoenik: izan ere, badirudi denak edo gehienak erromantzeen bitartez iritsiak direla.

3. Maileguen egokitzapena

Maileguak normalean egokitu egiten zaizkio hizkuntza hartzailearen egitura fonologiko eta morfologikoari. Hortaz, egokitzapenaz hitz egin behar dugu. Jarraian alor bakoitzean euskal maileguak jasan dituzten egokitzapenak aztertuko ditut.

Egokitzapen fonologikoak

Fonologia mailan hots arrotzak hizkuntza hartzailearen hots hurbilenarekin ordezkatzeko dira. Hotsez gain, egitura fonologiko arrotzak ere hizkuntza hartzailearen fonotaktikaren galbahetik igarotzen dira. Hona hemen euskarari dagozkion zenbait adibide:

- /f/ hotsa. Euskal fonologian halako hotsik ez zegoen garaian badirudi euskarak bortitz/ahul oposaketa zuela. Hori dela eta, /b/-rekin ordezkaturata azaltzen zaigu, horixe baitzen ezpainkarietan hurbilena, /f/-ren ahultasunari begiratuta.

Adb. lat. *ficu* > *biku*

Geroago, herskarietan ahostun/ahoskabe oposaketa gailendu zenean, /p/-rekin ordezkatu zen, /f/-aren ahoskabetasunari begiratuta.

Adb. *paltsu, peria, pesta, inpernu...*

- *Muta cum liquida taldeak*. Euskarak ez zuen kontsonante-bilkurarik onartzen eta horiek ekiditeko estrategia desberdinak erabiltzen zituen. Batetik, epentesia erabil zezakeen, kontsonante-bilkuraren eskuinean zegoen bokal berbera txertatuz.

Adb. *libru* > *liburu*; *gratia* > *garazi*; *fronte* > *boronte*; *granu* > *garau*

Bestetik, hitz hasierako kontsonante-bilkuretan herskariak gal zituzkeen:

Adb. *gloria* > *loria*; *claru* > *laru*

Nolanahi ere, hedadura handiko, denbora luzeko eta harreman estuko ukipen-egoeretan, fonema berriak sor daitezke hizkuntza hartzailean. Hots, haren fonema inbentarioa aldatzera irits daiteke, baita haren fonotaktika ere. Euskararentzat proposatu ditugun bi adibideak, hala /f/ nola *muta cum liquida* taldeak, biak onartu egin dira gerora, nahiko bakan eta bazterreko badira ere. Euren onarpenaren kronologia aztertze dagoena arren, ematen du azken mendean egin dutela sarbide gehiena.

Bestalde, maiz gertatzen da hitz bat era batera eta beste bat bestera egokitu izana, baita batzuetan hitz beraren egokitzapen desberdinak egotea ere. Ikus ditzagun zenbait adibide:

- Latineko /f/-k hitz hasieran emaitza oso desberdinak ditu euskaraz, are hitz berean ere:
lat. *filu* > eusk. *piru, phiru, firu, biru, iru...*
- Lat. *cruce* > eusk. *gurutze, gurutz, kurutze, krutze, kurutxe, krutxe, kurtxe, kutze, kutxe, gurtze, grutze...*

Arrazoiak bi dira. Batetik eta nagusiki, gara ezberdinetako maileguak dira, hau da, garaian garaiko egokitzapenak jasan dituztenak. Bestetik, batzuk ahoskeran oinarrituak izan daitezke eta beste batzuk idazkeran.

Egokitzapen morfologikoak

Hizkuntza hartzailearen morfologiari ere egokitu behar zaizkio maileguak. Esate baterako, gurea bezalako hizkuntza batean sartzeko, izenek deklinabidea jaso behar dute, eta aditzek partizipioaz gain aditzoina (Iparraldean behintzat) eta aditz-izena sortu behar dute.

Baina bestelako egokitzapen bereziak ere gertatzen dira: ondare zaharreko hitzak bailiran agertzen diren mailegu “mozorrotuez” ari gara. Adibidez:

- *pertz* < ***per-tz*. Oraindik ez dakigu zein den jatorrizko forma, baina badakigu mailegua dela, ez dagoelako ***per* errorik. Badakigu, ordea, zein ereduren arabera mozorrotu den: CVCC erroa da (*hartz* < **har-tz*, *hortz* < **hor-tz*), CVC erroei -tz bezalako atzizki kontsonantikoak erantsi zitzaizkien garaikoa.
- *negar* < lat. *lacrima*. **la crima* bezala berranalizaturik, bilakabide hau izan du: **crima* > **kirma* > **girma* > **girna* > **nirga* metatesis > **nerga* dardarkari aurreko irekitzeaz > *negar*. Hitz honen mailegutasuna sumatzeko bidea ez digu erroaren formak eman, hasierako kontsonantearen bakantasunak baizik.

4. Maileguen ekarpena hizkuntzaren historiari

Maileguetan gordetako aztarnek laguntza eman dezakete hizkuntzaren garai zaharragoez ezer jakiteko, dela hizkuntza hartzailearen dela emailearen garaiez. Latinetik hartutako maileguak eta horien bilakabideak aitzin-euskararen sistema fonologikoa berreraikitzeo oinarritzko lekukotasunak izan ziren Mitxelenarentzat. Hori gutxi balitz, maileguen aldaketen kronologia erlatiboa ulertzen ere lagun dezakete.

Latin-erromantzeetatik hartutako maileguetan hiru talde bereizi behar dira: latin garaikoak, aitzin-erromantzekoak eta erromantzekoak.

1. Latin garaikoak. *bake* bezalakoak ditugu, latin arrunteko aldaketak (/k/ > /ts/ / _e,i) baino lehenagoko latinaren ahoskera islatzen baitute.
2. Aitzin-erromantzekoak. *zeru* bezalakoek aitzin-erromantzeko garaian jartzen gaituzte, /k/ > /ts/ / _e,i aldaketa gertatu baita: lat. *coelu* /kelu/ > lat. arrunt. **tzelu* /ts/ > eusk. **zelu*. Euskaraz hitz hasierako txistukari afrikatua frikaritu egin da, ahulak bakarrik onartzen zirelako kokapen horretan. Gero *zelu* > *zeru* aldaketa gertatu da (l > r / V_V).

Klase bezalakoak oso berriak izan behar dira, *muta cum liquida* taldeagatik. Hasiera batean, kultismoak izan ezean, halakoek herskaria galdu edo bokal epentetikoa erantsiko zuten k.o.-ko edozein mendetan, beharbada azken mendean izan ezik.